

BEGOÑA (VII): BESTE GUDALDI BAT

1873n. urteko zezeillaren 11n. egunean, Saboia'ko Amadeo'k bere erregetza itzita laster, España'ko II Erkala aldarrikatu zan. Ondoren lez urduritasun aundia agertu zan erritarren artean eta Karlos'tarren jokabideak indar aundia artu eban barriro. Bizkaia'n nagusi agertu ziran Karlos'tarrak, Bilbao'n bertan izan ezik.



Urte orretako agustuan etorri zan VII Karlos erregegaia Gernika'ra Lege Zarra zin egitera.

Itxaroteko gauzea zan ba, Bilbao'ren aurka eraso a etorriko zala. Agustuaren 10n. egunean asi ziran danbadak eta gudari karlostarrak Bilbao-inguruko muñoetan egozan zur eta artega. 20n. egunean kendu eutsoen Bilbao'ri ura eta sar-bide guztiak itxi ziran. Iraillean esan eutsoen Kastelar España'ko agintariari Bilbao inguruta egoala. 29n. egunean, Karlos'tarrak Olabeaga'ko sarbidea itxi eban katez eta burdin-ariz eta Bilbao esituta geratu zan. Urrengo urteko orrillaren 2n. egunera arte iraun eban egoera orrek eta Bilbao'k gosea eta lertetak jasan bear izan ebazan.

Barriro inguratzen eban uria suzko garrikoak eta aurrerengo Begoña egoan. Santutegiak galdu eban bake-giroa eta guda-toki sendo biurtu zan.

Abenduaren 3n. egunean, danbaketa sendo bat izan ondoren, Baltzak, liberalak, sartu ziran Santutegira. Abade-taldeak, aurreko guda oraindiño gogogan eukalako, eleizatik irudia ta balioko gauzak atera eta Errefugio deritxon Maitasunaren Ama ren monastegira eroan ebazan eta antxe geratu ziran illearen 14n. egunera arte. Bilbao'ra jatsiko ebezala uste izan eta ara urreratu ziran Karlos'tarren gudariak eta dana eroan eban lenengo Justo eta Pastor santuen baseleizara eta gero Larra'ko lekaide-etxera, Zorrotza'ra. Aldi orretan Santutegia guda-toki sendo eta Udaletxeagaz batera arerioentzat eraso-toki biurtu zan: Karlos'tarrak tirokatzen eban Santutegia eta egunero jotzen ebazan eleizea ta onen torrea kañoi-lerkaiak. Torretik erantzuten eban forudunen zizpak. Martiaren asieran kanpai nagusia beeratu bear izan zan jauskor egoalako. 14n. egunean karlostarrak eleizeari sua

emon nai izan eutsoen, baiña ez eban lortu. 19n. egunean eraso gogor bat izan zan baiña azpiratu al izan eban. 30n. egunean Artagan eta Kate-zar'eko kañoiak ez eban besterik egin Begoña'ko gudalariai lerkaiak jaurti baiño eta torrearari kalte aundiak egin eutsoezan eta torregaiñeko arri landu

batzuk eleizearen gaiñera jausi eta eleiz-sabaiaren zati bat apurtu eban.

Ori izan zan Bilbao inguratzearen azkena. Orrillaren 1º egunean kendu eban esia Karlos'tarrak eta urrengo egunean sartu ziran urira Erkal-gudariak, Serrano ta Kontxa gudalburuak aurrean ebezala.

Orrillaren 3n. eguneko eguerdian uri-barruko gudari guztiak Aretza edo Arenalean batu ziran mezea egiteko eta onen ostean Serrano gudalburuak eta Torre-Kondeak (au Erkalaren Agintari Nagusia zan) gudarien aurrean garaipena ospatu eban.

Gudea amaitu zanean Begoña'ko Amaren Irudia Amorebieta'ko Larra'tik Begoña'ko bere lekura ekarri eban.

Barriro be, anai-arteko gudeak zapuztu eban Bizkaia. Erriko seme-alabak eta ekonomia eta antxiñatik arututako erakundeak zaurituta geratu ziran. Muñoa'ren gaiñean Begoñako eleizea agiri zan torrea apurtuta, dana zaurituta lez, dana zapuztuta. Orko arrietan agiri zan erriaren samintasuna.

OLAZAR'tar Martin'ek



ALDIZKARI ONEK
BIZKAIA'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU